

Garbine Ubeda Goikoetxea

## Panfleto banatzailea

**H**iru emakume, zorro bete panfleto antinuklear bizkarrean hartuta, Hendaiaiko saltoki nagusiko atarira heldu dira. Supermerkatua –zeinari mundu guztiak Champion txiki deitzen dion baina jabe berria duenetik Carrefour den–, herriko zentroa izan ohi da goizetan, adin batetik gorakoen dantzatoki, bizitza sozialerako bilgune. Areago gaur, hil hasierako larunbata.

Aldenik aldeko toldoan, paretari itsatsiak diruditen zaindariak izan ohi ditu: Arcachoneko ostra saltzailea, oinetakoak jartzeko gurarik ez duten bizpahiru eskale, haien zakur akitua eta kutxazain automatikoaren ondoko koska eserleku partikularizat hartua duen matraka-zalea. Gaur ez dira ageri. Euriak beldurtuko zituen.

Hiru emakume folioz armatuek militarri hartu dute tokia, edo bederen hala nahiko luke taldeko liderrak, manera zaharretan ikasitako aktibista ezkertiar beteteranoa, joan den aspaldian ingurumenaren aldeko militantziari *full time* emana. Erdiko pasabidean jarrita, akuilatu egiten ditu beste bi kideak, izatez eta arduraz apalagoak, panfletoa luzatzearekin batera leloren bat ozen bota dezaten, jendea kontzientziatzeko lanetan eraginkorrago, “profesionalago”, aritu daitezten. Ez da erraza.

Ibiltari harrituak, lehen kolpean Jehovahren Lekukoen atzaparretan erortzera doazela susmoa hartuta, maniobra disimulatuak inprobisatzen dituzte topaketa saihesteko. Adibidez, karramarroaren antzean zeharka ibiltzea, horrek estropezu egiteko aukerak biderkatuko badizkie ere. Adibidez, hil ala biziko presak hartuta trostan pasatzea. Adibidez, telefonotxo atera eta ministro okupatuaren plantak egitea.

Hiruretan herabeenak, mundua salbatzeko motibazioa aspaldi galdu eta taldeko liderraren marmar dogmatikoak berriro ez aditzeagatik etorri denak, soziologia merkea eginez samurtuko du eguarte osoan luzatuko den estualdia. Jolas sinplea propo-



DANI BLANCO

satzen dio bere buruari, atearen ertzean jarrita: hurreratzen den biktima bakoitza zein multzotakoa den igartzea, eta horren arabera, panfletoaren aurrean nola jokatu ote duen asmatzea.

Euskalduna bada, irribarrea zabalduz eta biziki eskertuz hartuko dio papera, “egun on” entzun orduko, aurkeztuko zaion gaia bost axolako bazaio ere. Gaztelaniaz mintzo den erdalduna bada, “*no entiendo*” lehorra esanez uxatuko du atrebentzia, pausoa bizkortuz, kopeta belztuz, eta bere hizkuntzan segida eman nahi izanez gero, “*si pero yo no soy de aquí*” erantsiz, horrek holokausto nuklearretik ere salbatuko balu bezala.

Frantses hiztunak “*merci*” esan eta oro har hartu egingo dio esku-orria. Horien artean batzuk, zahar jendeak, emakumez-

koek, txanpon-zorrotxo atera-tzeko keinua egingo diote badaezpada, eta ufada lasaigarria atzetik, eskupekorik tokatzen ez dela adituta. Beste zenbaitek atzera itzuliko dio folioa. Begietara so, Frantziako lobby nuklearrak bere alde baliatzen dituen argudioak kantatuko dizkio buruz. Ez dio ezer diskutituko. Aire.

Eguneko sorpresa, hala ere, bere katalogazio sisteman aparteko azpimultzoa osatu behar lukeen aiton berrikeriak eman dio. Patrika zabaletik arkatza atera, eta hartu berri duen panfletoaren bazterrean eskema moduko bat zirriborrotzen dion bitartean, bizikletetako dinamoz mintzatu zaio, dinamoz bidez sortzen den argindarraz.

“Hementxe duzu nuklearra saihesteko gakoetako bat”, bota dio euforiko, bukatu berri duen obra piktorikoa erakutsiz. “Jar ditzagun preso guztiak bizikleta estatikoetan pedalak eragiten, bospasei orduz. Asma dezagun modua ahalegin hori sare elektrikora hel dadin, eta hortxe argia debalde. Egin dezatela hori planetaren alde, gizartearen kontura bizi ditun eta”.



Hiru emakume folioz armatuek  
militarki hartu dute tokia, edo  
bederen hala nahiko luke taldeko  
liderrak, manera zaharretan ikasitako  
aktibista ezkertiar beteteranoa, joan den  
aspaldian ingurumenaren aldeko  
militantziari *full time* emana